

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

3994

EBAZPENA, 2023ko uztailaren 14koa, Portu eta Itsas Gaietako zuzendariarena, zeinaren bidez erabakitzen baita Bermeoko portuko arrain-lonjako taberna-jatetxea okupatu eta ustiatzeko adjudikazio-prozedura hastea, eta berau arautzeko oinarriak eta emakidaren baldintzak onartzea.

Lehenengoa.– Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak beharrezkotzat jotzen du Bermeoko portuko arrain-lonjako taberna-jatetxean zenbait lan eta eraberritze egitea, ekipamendua hobetzeko eta zerbitzuaren egungo eskariak betetzeko, eta errespetatu egin beharko dira kokapenaren eraikinaren ezaugarri formalak eta egiturazkoak.

Bigarrena.– Hori dela-eta, Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak lizitazio bat sustatu nahi du erabilera eta ustiapena adjudikatzeko. Horretarako, portuko jabari publikoko eremua okupatzeko emakida emango da, eta helburu hori betetzeko deitu da lehiaketa hau, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas Garraioaren ekainaren 28ko 2/2018 Legearen 38. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoarekin bat etorritz.

Nahiz eta egungo administrazio-emakida indarrean egon (2023ko irailaren 30ean iraungiko da), beharrezkoa izango da iraungi aurretik adjudikazio berriaren prozeduraren deialdia hastea, interesdunek proiektuak aurkeztu ahal izatea errazteko, eta, ahal den neurrian, zerbitzua ahalik eta denbora laburrenean etenda egon dadin.

Hirugarrena.– Portuen eta Itsas Garraioaren ekainaren 28ko 2/2018 Legearen 5.2 artikulua egungo Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari esleitzen dio EAEko portuetako politika garatzeko eta betearazteko eskumena, baita autonomia-titulartasuneko portu-sistemaren koordinazioaz eta kontrolaz arduratzea ere. Horrenbestez, egiteko hauek ditu, beste batzuen artean: portuko jabari publikoa kudeatzea, eraikitzea, ustiatzea, kontserbatzea, babestea, defendatzea eta diziplina ezartzea, eta autonomia-erkidegoko portuetan ematen diren emakidak eta baimenak ematea, aldatzea edo azkentzea.

Laugarrena.– Orain arte esandakoarekin bat etorritz, eta Ekonomiaren Garapen eta Azpiegitura Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen dituen otsailaren 23ko 68/2021 Dekretuaren 7.h) eta 14.1.g) artikuluek Zuzendaritza honi ematen dizkioten eskumenen arabera, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Bermeoko portuko arrain-lonjako taberna-jatetxea okupatu eta ustiatzeko administrazio-emakidaren adjudikazio-prozedura hastea.

Bigarrena.– Bermeoko portuko arrain-lonjako taberna-jatetxea okupatu eta ustiatzeko adjudikazio-prozedura lehiaketa izango dela zehaztea.

Hirugarrena.– Prozedura arautuko duten eta ebazpen honen I. eranskinean dauden oinarrien agiria onestea.

Laugarrena.– Emakida arautuko duten eta ebazpen honen II. eranskinean dauden baldintzak onestea.

2023ko abuztuaren 21a, astelehena

Bosgarrena.– Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Kontratazio Publikoko Plataformako Kontratatzailearen Profilean argitaratzea ebazpen hau eta prozeduraren iragarkia.

Seigarrena.– Ebazpen honen ondoreak indarrean jarriko dira Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Kontratazio Publikoko Plataformako Kontratatzailearen Profilean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko uztailaren 14a.

Portu eta Itsas Gaietako zuzendaria,
AITOR ETXEBARRIA ATUTXA.

I. ERANSKINA

OINARRIEN AGIRIA, ZEINAK ARAUTZEN BAITU BERMEOKO PORTUKO ARRAIN-LONJAKO TABERNA-JATETXEA OKUPATU ETA USTIATZEKO EMAKIDA EMATEKO LEHIAKETA.

I. XEDAPEN ERKIDEAK

1.– Xedea

Lehiaketaren xedea da jabari publikoko honako ondasuna okupatu eta ustiatzeko administrazio-emakida emateko eskaintzarik onena hautatzea: Bermeoko portuko arrain-lonjako taberna-jatetxea eta hari atxikitako terraza. Azalera osoa 225 m²-koa da.

2.- Izaera

1.– Baldintza-agiri honen bidez ezartzen dira aurreko apartatuan aipatutako administrazio-emakida emateko deitzen den lehiaketa arautuko duten oinarriak.

2.– Hemen arautzen den prozedurak administrazio-izaera du, eta aipatutako emakidaren prozedura prestatzen du, haren aurretiazko fasea baita. Horren ondorioz, lehiaketan hautatua denak eskubidea izango du portu-araudian ezarritako izapiderako, aurkezten duen dokumentazioan oinarrituta emakida emateko.

3.– Lehiaketaren adjudikaziodunak emakida izapidetzeari uko egingo balio, edo emakida emateko ezarritako baldintzak onartuko ez balitu, Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak aukera izango du prozedura adjudikatu gabe uzteko, edo emakida izapidetzeko lehiaketan sailkatu den hurrengoarekin, lehiaketa berri bat deitu beharrik izan gabe.

3.– Emakidaren kokapena eta azalera

1.– Bermeoko portuko arrain-lonjan dago Oinarrien Plegu honen bitartez ustiatzeko asmoz adjudikatuko den eraikina, Erroxape kaian, eta eraikitako azalera 145 m²-koa da. Horietatik, 121 m² taberna eta komunak dira, eta 24 m² alboko azalera estalia da. Azalera horiei atxikitako terrazaren 80 m²-ko azalera gehitzen zaie. Emakidaren xede diren azaleren planoa baldintza-agiri honi atxiki zaio.

2.– Instalazioak hainbat hamarkadetan ustiatu dituzte, eta, ondorioz, gaur egun ez daude baldintza egokietan diseinatu izan ziren jarduerak bertan gauzatu ahal izateko, eta beharrezkoa da instalazioak birmoldatzea. Lan horietan, besteak beste, espazioak eta erabilerak berrantolatuko dira, eta, horrela, eraikina modernizatu, eta behar eta gizarte-errealitate berrietara egokituko da. Horretarako, egokitzapen-lanak egin beharko dira, instalazioek sukaldaritza-, ostalaritza-, eta aisialdi-arloetan indarrean dagoen legezkotasuna bete dezaten. Lan horietan, besteak beste, altzariak, gailuak eta osagarriak instalatu eta ordezkatzeko dira, eta Portuko Plan Bereziaren zuzentarauak eta eraikinaren babes-mailak ezarri ahalko lituzketenak bete beharko dira, establezimendua martxan jartzeko moduan egon dadin eta zuzen funtzionatu dezan.

Halaber, aurretik aipatu dugun eta eraikinaren fatxadaren alboan dagoen 80 m²-ko azalera egokitu beharko da aurreikusitako erabilerak zuzen garatzeko; azalera hori, gainera, mugatu egin beharko da itxitura batekin. Itxitura horrek egitura gardena edo zeharrargia izango du, eta erraz desmuntatzeko modukoa izango da.

Edonola ere, adjudikaziodunaren kargura izango dira instalazioak martxan jartzeko egin beharreko lanak edo ekipoen instalazioak.

3.– Lehiaketa honetatik kanpo daude aurretik aipatutakoak ez diren bestelako azalera. Horrenbestez, ez da onartuko okupatu beharreko erabilera eskusiboko gehieneko azalera inolako aldaketarik egitea, salbu eta hori egitea guztiz ezinbestekoa izatea baimenak eta lizentziak eskuratzeko (adibidez, ke-irteerak eta antzekoak). Edonola ere, zuzen justifikatuta egon beharko da aurreko inguruabarra.

4.– Portu Agintaritzak emandako informazioa

Lizitazio-iragarkia Euskal Autonomia Erkidegoaren Kontratazio Publikoko Plataformako Kontratzailearen Profilean argitaratuko da. Halaber, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas Garraioaren ekainaren 28ko 2/2018 Legearen 42.4 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik, deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratuko da.

Deialdia Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Kontratazio Publikoko Plataformako Kontratzailearen Profilean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita, lizitatzailerak posibleek eskuragarri izango dute oinarrien agiri hau, okupazio- eta ustiapen-emakida arautuko duten baldintza-agiria eta dagozkien eranskinak, plataforma horretan guztiak aztertu ditzaten.

Horretaz gain, informazio hori Eusko Jaurlaritzaren Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzaren webgunean eskuragarri egongo da.

Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak emandako dokumentazioari buruzko kontsultak idatziz egin beharko dira Euskal Autonomia Erkidegoaren Kontratazio Publikoko Plataforman, gutxienez proposamenak jasotzeko azken eguna baino zazpi (7) egun lehenago. Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak aipatutako plataforman lizitatzailerentzat eskuragarri izango du erantzundako kontsulten zerrenda.

5.– Aurkeztu beharreko proiektua

1.– Administrazioak, aurretik aipatu diren azalera horiek adjudikaziodunari gaur egun dauden egoeran emango dizkio, eta, horrenbestez, adjudikaziodunak egin beharko ditu instalazioak zuzen ustiatzeko beharrezko diren jarduketak eta lanak.

Agiri honekin batera, instalazioetako planoak eta horien egungo egoeraren argazkiak atxiki dira (ikus 1.1 ERANSKINA).

2.– Egingo diren lanak hautatua izango den eskaintzaren arabera izango dira, eta arraina erakutsi eta saltzeko lonjarekin konektatzen duen korridoreak itxitura opakua izan beharko du nahitaez, eta terrazako 80 m²-ko azalaren perimetroa itxita egon beharko da. Bigarren itxitura hori elementu garden eta zeharrargiekin egingo da, eta egitura erraz desmuntatzeko modukoa izan beharko da.

Eskaintzak proposatzen dituztenek, lan- eta jarduketa-programazio bat aurkeztu beharko dute, eta gehienez ere sei hilabeteko epean egingo dira, lehiaketaren adjudikazio-ebazpena jakinarazten denetik aurrera zenbatzen hasita. Lanak une oro lonjako jarduerarekin koordinatu beharko dira, eta inoiz ere ez dute lonjako jardura oztopatuko. Hala, lanak planifikatzen direnean, kontuan hartu beharko da lan-eremuaren kokapena, portu inguruan eta bertako eragiketetan sortutako eraginak gutxitzeko.

Lokalak egokitzeko lanak bukatzen direnean —zeinak aurretiaz onartu beharko diren nahitaezko baimenaren bitartez—, emakidaren titularrak, eraikin honen zuzendaritza arduradunaren idazkiaren bitartez (gaur egun, Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritza), lanak ikuskatzeko eskatuko du, eta planoak eta akta egin eta gero, onartu egingo dira.

6.– Eskaera egiteko betebeharrak

1.– Lehiaketan parte hartu ahal izango dute pertsona fisiko edo juridiko guztiek, espainiar nazionalitatea dutenek edo atzerritarrek, baldin eta jarduteko gaitasun osoa izanda, kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, eta gaitasun teknikoa eta profesionala egiaztatzen badituzte, eta kontratatzeke debekurik ezarrita ez badute.

2.– Pertsona juridikoei beren estatutuen edo fundazio-arauen arabera berezko dituzten helburu, xede edo jarduera-eremuaren barne dauden prestazioekin bat datozen emakidak bakarrik adjudikatuko zaizkie. Gainera, emakida zuzen betearazteko giza baliabide eta baliabide material nahikoak dituen antolamendua izan beharko dute.

3.– Europar Batasuneko estatu kideetako enpresa ez espainiarrek kontratatzeke gaitasuna izango dute, baldin eta egoitza finkatuta duten estatuko legediaren arabera, kontratuaren xedea eratzen duen prestazioa egiteko gaituta badaude.

4.– Europar Batasunekoak ez diren estatuetako atzerriko pertsona fisiko edo juridikoek lehiaketan parte hartu ahal izango dute, baldin eta aurreko paragrafoko betekizunak betetzeaz gain, honako hauek ere betetzen badituzte:

– Espainiar nazionalitatea dutenentzat elkarrekikotasuna duen estatu batekoak izatea.

– Egoitza fiskala Espainian izatea.

– Estatuko kontratuen legeriak atzerritarrekin kontratatu ahal izateko eskatzen dituen baldintzak betetzea.

Aurreko guztia, albo batera utzi gabe lege bereziek atzerritarrei emakidak emateko ezartzen dutena.

5.– Lehiaketara aurkeztu ahalko dira helburu horretarako aldi baterako eratzen diren enpresa-elkarteak; ez da beharrezkoa izango elkarteok eskritura publikoan formalizatzea, harik eta adjudikazioa beren alde eman arte.

6.– Ondasun-erkidegoak ezingo dira lehiaketara aurkeztu.

7.– Lizitaziotik automatikoki kanporatuko dira Sektore Publikoaren Kontratuen Legian kontratatzeke aurreikusitako debekuak ezarrita dituzten pertsona fisikoak eta juridikoak, eta honako hauek baita ere:

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrak emandako baimenen edo emakiden betebeharrak urratu dituztenak.

– Aipatutako tituluren bat izanik, edo aurretik horrelakoren bat edukita, horiekin lotutako ordainketa-betebeharrak egunean ez dituztenak.

– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrarekin zorrak dituztenak.

8.– Aurretik xedatutakoak enpresa hauei ere eragingo die: zuzendaritzan dauden pertsonen edo bestelako inguruabarrei erreparatuta, pentsa badaiteke kontratatzeke debekua jaso duten beste enpresa batzuen jarraipena edo ondorena direla, eraldatze, bat-egite edo ondorengotza bitartez.

II. ADJUDIKAZIO-PROZEDURA

7.– Proposamenak aurkeztea.

Proposamenak aurkezteak esan nahi du baldintza-agiri honetako oinarriak eta emakidaren baldintzak onartzen direla, eta parte-hartzea eskatzen duenaren erantzukizunpeko adierazpenaren bitartez azalduko da emakida eskuratzeko eskatutako baldintza guztiak betetzen dituela.

8.– Eskabideak aurkezteko epea eta lekua.

1.– Oinarri hauen bidez deitzen den lehiaketan parte hartzeko, eskaerak Euskal Autonomia Erkidegoko Kontratazio Publikoaren Plataforman aurkeztuko dira:

<https://www.contratacion.euskadi.eus/hasiera/>

2.– Eskaerak aurkezteko epea hiru hilabetekoa izango da ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Kontratazio Publikoko Plataformako Kontratatzailearen Profilean argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera zenbatzen hasita.

Epearen azken eguna baliogabea bada, epea hurrengo egun baliodunera atzeratzen dela ulertuko da.

3.– Eskatzaileek proposamen bakarra aurkeztu ahal izango dute, eta ezingo dute proposamenik sinatu beste batzuekin batera aldi baterako elkarte eratu, aurretik proposamena bakarka aurkeztu badute, eta ezingo dira egon aldi baterako elkarte batean baino gehiagotan ere. Baldintza hori betetzen ez bada, ez dira onartuko aurkezten dituzten proposamenak.

4.– Prozedura izapidetzean eta adjudikazioa egin baino lehen enpresa lizitzailearen nortasun juridikoa iraungitzen bada beste enpresa batekin bat egin duelako, zatitu egin delako edo bere enpresa-ondarea eskualdatu egin duelako, prozeduran bere lekua hartuko du sozietate xurgatzaileak, alegia, zatiketaren onuradunak edo ondarearen eskuratzzaileak, betiere Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzan baldintza-agiri honetan jasotako betekizunak betetzen dituela egiaztatzen badu.

5.– Emakida izapidetu eta gero, eta errekurtsioak jartzeko epeak bukatu eta horrelakorik aurkeztu ez denean, hautatuak izan ez diren eskaeren dokumentazio orokorra eskatzaileentzat eskuragarri jarriko da Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzan. Eskatzaileek dokumentazio hori 6 hilabeteko epean jasotzen ez badute, Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak suntsitu egingo du.

9.– Proposamenak aurkezteko modua.

1.– Lizitazio hau elektronikoa da oso-osorik. Beraz, lizitzaileek beren eskaintzak nahitaez formatu elektronikoan prestatu eta aurkeztu beharko dituzte, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoaren Kontratazio Publikoko Plataformaren lizitazio elektronikoko zerbitzuetan. Modu horretan aurkezten ez diren eskaintzak ez dira onartuko.

2.– Proposamenak eta horiei atxikitako gainerako agiriak (guztiak batera osatuko dute eskaintza), hiru (3) gutun-azal elektronikotan entregatuko dira, 1, 2, eta 3 zenbakiekin.

Agiri eta gutun-azal guztiak lizitzaileak edo haren baliozko ordezkariak duenak sinatu beharko ditu. Lizitzaileek aitortuta dagoen sinadura elektroniko baten bitartez sinatu beharko dute; sinadura ziurtapen-zerbitzuen emaille batek baliozko moduan emandakoa izan beharko da, eta proposamenaren eta harekin lotutako agiri guztien nortasuna eta osotasuna bermatu beharko ditu.

Aldi baterako enpresa-elkartea bada, bakoitzaren datuak adierazi beharko dira, eta gutun-azalak elkartearen osatzen duten enpresa guztietako ordezkariak sinatu beharko dituzte.

Lizitatuzaileei gomendatzen zaie, eskaintzak sinatu eta bidali aurretik eta nahikoa aurrerapenarekin, egiaztatzea plataforman proposamenak aurkezteko software-betekizunak.

Eskaintzek ez dute birus informatikorik edo inolako programa edo kode maltzur edo kaltegarririk izan beharko. Lizitatuzaileek agiriari antibirusa pasatu beharko diete, eta lizitatuzaileen erantzukizun osoa izango da Portu eta Itsas Galetako Zuzendaritzak agiriaren edukia eskuratu ezin izatea.

Baloraziotik kanpo geratzeko arrazoia izango da aipatutako dokumentazioa ez aurkeztea, eta ez dira onartuko aurkeztutako eskaintza ezagutzea galarazten duten omisioak, akatsak edo zirriborroak dituzten proposamenak, albo batera utzi gabe Balorazio Batzordeak egokitzen jotzen dituen azalpenak eskatu ahal izatea.

Norbaitek uste badu bere eskaintzak dokumentazio konfidentziala duela, 1. gutun-azalean adierazpen osagarria atxiki beharko du, eta bertan adierazita egongo dira bere ustez konfidentzialtzat jo behar diren administrazio-agiriak, dokumentu teknikoak eta datuak.

Hori, gainera, argi eta garbi adierazi beharko da (gaininprimatua, marjinan edo beste edozein modutan) halakotzat adierazitako dokumentuan bertan. Enpresa lizitatuzaileek aurkeztutako agiriak eta datuak konfidentzialtzat hartu ahal izango dira haiek hirugarrenei zabaltzea enpresa lizitatuzaile horien interes komertzial legitimoen kontrakoa denean, sektoreko enpresen arteko lehia leiala kaltetu dezakeenean edota DBLOn ezarritako debekuen barruan sartzen direnean. Adierazpen hori aurkeztu ezean, dokumentu edo datu konfidentzialik ez dagoela ulertuko da.

3.– Lizitatuzaileek beharrezko diren agiri guztiak euskaraz edo gaztelaniaz aurkeztuko dituzte, eta, beste hizkuntza batean idatzita badaude, aipatutako hizkuntza batera egindako itzulpen ofiziala aurkeztu beharko dute.

10.– Proposamenen edukia

1.– Gutun-azal bakoitzean, hurrengo dokumentazioa jaso beharko da:

1. GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA. Dokumentazio orokorra. Jarduteko gaitasuna. Ekonomia- eta finantza-kaudimena, eta tekniko-profesionala.

a) Eskaera aurkezten duenaren nortasuna egiaztatzeko agiria (NANA/IFZ), eta hala badagokio, eskatzailearen jarduteko ordezkari-tza-ahala.

Pertsona juridikoak diren enpresaburuen jarduteko gaitasuna eratze-aktaren edo eskrituraren bidez, estatutuen bidez edo sortze-egintzaren bidez egiaztatuko da, non haien jarduera erregulatzeko arauak jasota egon beharko diren, behar bezala erregistratuta dagoen erregistro publikoan, pertsona juridiko motaren arabera.

Espainiakoak ez diren enpresen jarduteko gaitasuna, Europar Batasuneko estatuetako edo Europako Esparru Ekonomikoari buruzko Akordioa sinatu duten estatuetako herritarrak direnean, haiek ezarrita dauden estatuko legeriaren arabera dagoen erregistroan izena emanda egiaztatuko da, edo zinpeko aitortpena edo ziurtagiri bat erregelamenduz ezarritakoaren arabera aurkeztuta, aplikatzekoak diren Europar Batasuneko xedapenak kontuan hartuta.

Atzerriko gainerako enpresaburuek jarduteko gaitasuna dutela egiaztatu beharko dute, Espainiak haien estatuan duen Ordezkaritza Diplomatiko Iraunkorraren txostena erakutsita edo enpresaren egoitzaren lurralde-eremuari dagokion Kontsuletzeko Bulegoaren txostena erakutsita.

b) Ekonomia-jardueren gaineko zergan alta emanda dagoela eta gizarte-segurantzako ordainketak egunean dituela egiaztatzea, organo eskudunak emandako ziurtagiriaren bidez. Halaber, erantzukizunpeko adierazpenarekin ere egiaztatu ahal izango da. Azken kasu horretan, eskatzailea adjudikaziodun aterako balitz, bost egun balioduneko epea emango zaio aipatutako betekizunak zuzen egiaztatu ditzan.

c) Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren Finantza Politikako Zuzendaritzan, eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailarentzat eskuragarri jarrita, behin-behineko 1.000 euroko (mila euro) bermea eratu izanaren frogagiria. Fidantza hori itzuli egingo zaie lehiaketaren adjudikazioa eskuratu ez dutenei, emakida izapidetzen denean eta errekurtsioak jartzeko epea bukatu, eta horrelakorik jarri ez denean.

Fidantza horrekin, oinarri hauetako betebeharrak beteko direla eta aurkeztutako proposamenean jasotako baldintzak fidantza itzultzen denera arte mantenduko direla ziurtatuko da.

Adjudikaziodunari fidantza itzuliko zaio ustiapen-bermea gordailutu dela egiaztatzen denean.

d) Dokumentazioa edo, hala badagokio, egiaztapen-memoria (ahalbidetzen duena eskatzailearen kaudimen ekonomikoari eta finantzarioari, eta gaitasun tekniko edo profesionalari buruzko informazioa izatea eta horren inguruko iritzia sortzea), eta proposatutako erabilerekin zerikusia duten lanetan pilatutako esperientzia egiaztatzen duen dokumentazioa, zerbitzu-prestazioko urteak eta lekuak adieraziz.

e) Azterlan ekonomiko-finantzarioa, bere bideragarritasuna justifikatzen duena. Gutxienez, ustiapen-kontuaren aurreikuspen bat izan beharko du, gutxienez bost urterako, Kontabilitateko Plan Orokorrearekin bat etorriz.

f) Berariazko adierazpena, oinarrien agiri honetan eta emakidaren baldintza-agirian jasota dauden baldintzak ezagutzen eta onartzen direla adierazita; era berean, Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak ez duela inolako erantzukizunik bere gain hartuko hautatutako eskaintza onartzen ez bada, ezta beharrezko diren lizentziak edo baimenak eskuratu ezin izanagatik sor daitezkeen kalte eta galerengatik ere, interesdunari egotz ezin dakizkiokeen arrazoien ondorio badira.

g) Emakida eraikuntza- eta ustiapen-faseetan garatzeko beharrezkoak diren baimenak eta lizentziak eskuratzeko berariazko konpromisoa.

h) Ogasun Publikoen Legearen testu bategina onartzen duen martxoaren 5eko 2/2004 Legegintzako Errege Dekretuan xedatutakoa betetzearen berariazko konpromisoa, katastro-titularrak Katastroko Zuzendaritza Nagusiari administrazio-emakidaren titulartasuna eskuratu izana jakinaraztearen betebeharrarekin lotuta.

2. GUTUN-AZAL ELEKTRONIKOA. Formulak aplikatuz automatikoki ebaluatuko den eskaintza.

Dokumentu hau(ek) aurkeztu beharko d(ir)a gutun-azal horretan:

·Egingo den inbertsio guztia, 1.2 ERANSKINEAN agertzen den ereduaren arabera.

·Eskainitako zerbitzuak, 1.3 ERANSKINEAN agertzen den ereduaren arabera.

Zerbitzuaren ordutegiak, 1.4 ERANSKINEAN agertzen den ereduaren arabera. Aurrekoarekin batera, urteko egutegiaren gutxi gorabeherako proposamena atxiki beharko da, hilabeteka banatuta, eta bertan agertuko dira eskainitako ordutegia justifikatzen duten urteko irekiera- eta itxiera-ordutegi guztiak.

·Eskainitako tokiko produktuak, 1.5 ERANSKINEAN agertzen den ereduaren arabera. Aurrekoarekin batera, kontsumorako tokiko produktuen zerrenda aurkeztu beharko da eta

bezeroei eskainiko zaizkie produktuon jatorri zehatza adierazita. Eskaintza iraunkorra edo sasoiaren arabera izango da.

·Kontratatu diren langileekiko hartutako konpromisoaren erantzukizunpeko adierazpena, 12.2.2 apartatu 2. irizpideko 4. azpi-irizpidean adierazita dagoena.

·Kontratatu diren langileen hizkuntza-eskakizunnez hartutako konpromisoaren erantzukizunpeko adierazpena, 12.2.2 apartatu 2. irizpideko 5. azpi-irizpidean adierazita dagoena.

·Tasaren zenbatekoaren hobekuntza, 1.6 ERANSKINEAN agertzen den ereduaren arabera.

3. GUTUN-AZALA. Balio-judizio batean oinarrituta ebaluatuko den eskaintza.

Dokumentuaren izena: BERMEOKO PORTUKO LONJAKO TABERNA-JATETXEAREN MEMORIA TEKNIKOA, OINARRIZKO AURREPROIEKTUA EDO PROIEKTUA

Zer irizpideri lotzen zaion: ESPAZIOEN ERABILEREN BANAKETA

Agirian jaso beharreko informazioa edo datuak: Agiriak oinarri honetako 12.2.1 apartatu 1. irizpidean jasotako adjudikazio-irizpidea eta egokitzen jotzen den gainerako informazioa edo dokumentazioa bete beharko ditu.

3. gutun-azalean 2. gutun-azalean ebaluatzekoak diren irizpideei buruzko agiriak edo datuak aurkezten badira, lizitatuak aurkeztutako eskaintza automatikoki baztertuko da.

Eskaintzan jasotako agiriak lotesleak dira. Halaber, gutun-azal bakoitzean jasotako askotariko apartatuak zuzen identifikatuta egon beharko dira, erantsitako agirietan atxikitako ereduaren arabera (2. gutun-azalari buruzko dokumentazioaren kasuan), eta apartatu honetan ezarritako hurrenkerari jarraituz.

11.- Balorazio Batzordearen osaera:

Eskaintzak balorazio-batzorde batek aztertuko ditu, eta kide hauek osatuko dute, analisiaren objektibotasuna bermatzeko:

– Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzako herri-lanen arduraduna batzordeburua izango da, eta kalitateko botoa izango du. Ordezkoa: Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzako arkitekto teknikoa.

– Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzako Aholkularitza Juridikoko Arloko arduradunak idazkari gisa jardungo du. Ordezkoa: Dagokion arloko aholkulari juridikoa.

– Bizkaiko Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzako herri-lanen arduradunak batzordekide gisa jardungo du. Ordezkoa: Bizkaiko Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzako herri-lanen teknikaria.

Euskal Autonomia Erkidegoaren Kontratazio Publikoko Plataformako Kontratatuzailearen Profilean egongo den lehiaketaren iragarki-taulan argitaratuko dira proposamenak aurkezteko azken eguna eta ordua, eta 1., 2., eta 3. gutun-azalak irekitzeko egunak eta orduak. Horretaz gain, bilerak bukatzean batzordeak/mahaiak sortutako aktak, 3. gutun-azalaren balorazio-txostena eta behin betiko adjudikazio-proposamena argitaratuko dira. Azkenik, Kontratatuzailearen Profilean aipatutako lehiaketaren espedientearen «Ebazpena» erlaitzean argitaratuko da, baita ere, lehiaketa honen xede den emakida emateko Portu eta Itsas Gaietako zuzendariaren ebazpena.

12.- Balorazio-irizpideak.

12.1.- Adjudikazio-irizpide bakarra dago: ez.

12.2.- Adjudikazio-irizpide asko daude: bai.

12.2.1.- Balio-judizio batean oinarrituta aplikatzen diren irizpideak: bai.

Irizpidea: ESPAZIOEN ERABILEREN BANAKETA.

Haztapena: 10 puntu

Irizpidea baloratzeko metodoaren azalpena:

Bermeoko portuko arrain-lonjan taberna-jatetxeko jarduera garatzeko eskuragarri jarritako instalazioetako espazioen askotariko erabileren proposamena (irismena eta deskribapena) baloratuko da. Zehazki, proposamenaren xehetasun-maila, egokitasuna, garapena, espazioen banaketaren argitasuna eta zehaztapena, logistikak barne-mugimenduekiko duen egokitzapena eta instalazio osoaren koherentzia estetikoa baloratuko dira. Enpresa lizitatzailleek aurkeztu beharreko memorian, aurreproiektuan edo oinarritzko proiektuan jasoko den dokumentazio grafikoa nahikoa izan beharko da aurkeztutako proposamena ulertzen dela bermatzeko.

Talde honen haztapena, guztira: 10 puntu

12.2.2.- Formulak aplikatuz automatikoki ebaluatuko diren irizpideak:

1. irizpidea: EGINGO DEN INBERTSIOA, GUZTIRA.

Haztapena: 35 puntu

Formula: gehienez 35 puntu emango zaizkio 325.000 euroko inbertsioari, eta 0 puntu gutxieneko 150.000 euroko inbertsioari. Gainerako eskaintzak modu honetan puntuatuko dira: puntu 1 emango da 150.000 eurotik gorako 5.000 euroko inbertsioari. (Ikusi I.2 ERANSKINA).

OHARRA: eskaintako inbertsioa guztira 325.000 euro baino gehiagokoa bada, gehieneko puntuazioa 35 puntukoa izango da.

2. irizpidea: USTIAPEN-PLANA.

Haztapena: 45 puntu

Irizpidea baloratzeko metodoaren azalpena:

1. azpi-irizpidea: ESKAINITAKO ZERBITZUAK.

Haztapena: 15 puntu

Irizpidea baloratzeko metodoaren azalpena:

Irizpide hori baloratzeko (eskaintako zerbitzuak) EZ dira zenbatuko eskaintza GUZTIEK izan behar dituzten kafetegi- eta menu-zerbitzuak. Zerbitzu horiek kenduta, gehienez ere 15 puntu emango zaizkio zerbitzu gehien eskaintzen dituen eskaintzari, eta proportzionalki gainerako eskaintzei. (Ikusi I.3 ERANSKINA).

2. azpi-irizpidea: ZERBITZUEN ORDUTEGIAK.

Haztapena: 10 puntu

Irizpidea baloratzeko metodoaren azalpena:

Gehieneko puntuazioa (10 puntu) emango zaio urtean zerbitzu-ordu gehien aurkezten dituen eskaintzari, eta proportzionalki gainerako eskaintzei. Abiapuntua urteko 1.825 orduko eskaintza izango da, eta horrek 0 puntu jasoko ditu. (Ikusi I.4 ERANSKINA).

Urteko egutegiaren gutxi gorabeherako proposamena aurkeztu beharko da hilabeteka banatuta, eta bertan agertuko dira urteko irekiera- eta itxiera-ordutegi guztiak.

OHARRA: ordutegiak ezberdinak izan ahalko dira urteko sasoiaren arabera.

3. azpi-irizpidea: ESKAINITAKO TOKIKO PRODUKTUAK.

Haztapena: 10 puntu

Irizpidea baloratzeko metodoaren azalpena:

Gehienez ere 10 puntu emango zaizkio tokiko produktu gehien eskaintzen dituen eskaintzari, eta proportzionalki gainerako eskaintzei. (Ikusi I.5 ERANSKINA).

Bezeroei eskainiko zaizkien kontsumorako tokiko produktuen zerrenda bat aurkeztu beharko da, produktuon jatorri zehatza adierazita. Eskaintza iraunkorra edo sasoiaren araberakoa izango da.

4. azpi-irizpidea: KONTRATATUKO DIREN LANGILEAK.

Haztapena: 6 puntu

Irizpidea baloratzeko metodoaren azalpena:

puntu 1 emango da desgaitasun funtzionala dutenei esleituko zaien eta sortu nahi den lanpostu bakoitzeko (% 33 baino gutxiagoko desgaitasun-maila dutenen kasuan ez). Atal honetan gehienez ere 3 puntu emango dira, eta 0,5 puntu pertsona osagarri bakoitzeko. (Ikusi I.7 ERANSKINA).

5. azpi-irizpidea: KONTRATATUKO DIREN LANGILEEN HIZKUNTZA-GAITASUNA.

Haztapena: 4 puntu

Irizpidea baloratzeko metodoaren azalpena:

Langileen hizkuntza-gaitasuna egiaztatzen denean haiek euskaraz egindako ikasketa ofizialetako Europako Esparru Bateratuko B2 mailarekiko edo handiagoarekiko baliokideak diren tituluen edo ziurtagirien bidez, langile bakoitzeko puntu 1 jasoko da, eta 0,75 puntu emango dira egiaztapen bera ingelesekoa edo frantsesekoa denean; gehienez ere 4 puntu eskuratu ahalko dira. (Ikusi I.8 ERANSKINA).

3. irizpidea: TASAREN ZENBATEKOA HOBETZEA.

Haztapena: 10 puntu

Formula: gehieneko puntuazioa (10 puntu) emango zaie €/m²/urte kontzeptuan hobekuntza-zenbateko handiena eskaintzen duten eskaintzei. 0 puntu emango zaie tasa hori hobetzeko eskaintzarik egiten ez duten proposamenei. Gainerako eskaintzak proportzionalki baloratuko dira. (Ikusi I.6 ERANSKINA).

1. OHARRA: 2023rako, 26,10 €/m²/urte da eraikitako azalerari aplikatuko zaion tasa, eta eraiki gabeko azalerarena 13,07 €/m²/urte. Hurrengo urteetan, hala dagokionean, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituzten legeetan eguneratutako zenbatekoa aplikatuko da. Aurrekoaren emaitzari, indarreko BEZa eta, EAeko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen 197. quinquies 5.1.3 artikuluekin bat etorritik, % 50eko gehikuntza erantsiko zaio (portuko eginkizunekin lotuta ez dagoen merkataritza-jarduera). Erreferentzia gisa, 2023. urte honetan aplikatuko den tasa guztira 7.245,15 eurokoa izango da (BEZa kanpo).

2. OHARRA: emakidaren titularrak ordainduko du zenbateko osagarri hori gainerako tasekin batera, horietarako aurreikusitako epeetan, baina zerga-izaerarik ez dutenez, zenbateko osagarri horiek ez dira Tasen Legearen eguneratze-araubidearen eraginpean egongo.

Talde honen haztapena, guztira: 90 puntu

I.1 ERANSKINA

BERMEOKO PORTUKO ARRAIN-LONJAKO TABERNA-JATETXEAREN EGUNGO EGOERAREN ARGAZKI-ERREPORTAJEA ETA PLANOA




1. irudia_kanpoko terraza. Egungo egoera.



2. irudia_lokalaren barnealdea. Jatetxearen eta tabernako barraren egungo egoera.



3. irudia_lokalaren barnealdea. Jatetxearen eta tabernako barraren egungo egoera.



I.2 ERANSKINA

EGIN BEHARREKO INBERTSIOA, GUZTIRA - FORMULEN BIDEZ EBALUATZEN DIREN
IRIZPIDEAK

..... jaunak/andreak, norbere izenean edo
.....(operadore ekonomikoa) ordezkatzuz, IFZ
zenbakiduna (operadore ekonomikoarena); Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Euskal
Autonomia Erkidegoaren Kontratazio Publikoko Plataformako Kontratatzailearen Profilean argitaratu
den BERMEOKO PORTUKO ARRAIN-LONJAKO TABERNA-JATETXEA GAITU ETA USTIATZEKO
ADMINISTRAZIO-EMAKIDAREN ESPEDIENTEA IZAPIDETZEKO ESKAINTZA HAUTATZEKO
LEHIAKETAREN jakitun izanik,

eta lehiaketa horren oinarrien agirian eta emakida arautuko duen baldintza-agirian eskatzen diren
baldintzen eta betekizunen jakitun izanik, bere eskaintza hautatzeko eskatzen du, agiri horietan
zehaztutako ondorioetarako, eta konpromisoa hartzen du lokal hori gaitzeko, kudeatzeko eta ustiatzeko,
aipatutako betekizunak zorrozki betez, eta honako termino hauetan:

Inbertsioaren zenbatekoa (BEZik gabe)	BEZa (% 21)	Prezioa, guztira (€)
..... €		

Enpresa lizitatzailleak dagokion justifikazio-dokumentazioa aurkeztu beharko du.

.....(e)n, 20...(e)koaren ...(e)(a)n

Sinadura:

I.3 ERANSKINA

ESKAINITAKO ZERBITZUAK - FORMULEN BIDEZ EBALUATZEN DIREN IRIZPIDEAK

..... jaunak/andreak, norbere izenean edo(operadore ekonomikoa) ordezkatzuz, IFZ zenbakiduna (operadore ekonomikoarena); Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Kontratazio Publikoko Plataformako Kontratatzailearen Profilean argitaratu den BERMEOKO PORTUKO ARRAIN-LONJAKO TABERNA-JATETXEA GAITU ETA USTIATZEKO ADMINISTRAZIO-EMAKIDAREN ESPEDIENTEA IZAPIDETZEKO ESKAINTZA HAUTATZEKO LEHIAKETAREN jakitun izanik,

eta lehiaketa horren oinarrien agirian eta emakida arautuko duen baldintza-agirian eskatzen diren baldintzen eta betekizunen jakitun izanik, bere eskaintza hautatzeko eskatzen du, agiri horietan zehaztutako ondorioetarako, eta konpromisoa hartzen du lokal hori gaitzeko, kudeatzeko eta ustiatzeko, aipatutako betekizunak zorrozki betez, eta honako termino hauetan:

Zenbaketa	Eskainitako zerbitzuaren izena
1. zk.	
2. zk.	
3. zk.	
4. zk.	
5. zk.	
(...)	
GUZTIRA	(Zk.)

.....(e)n, 20...(e)koaren ...(e)(a)n

Sinadura:

I.4 ERANSKINA

ZERBITZUAREN ORDUTEGIAK - FORMULEN BIDEZ EBALUATZEN DIREN IRIZPIDEAK

..... jaunak/andreak, norbere izenean edo
(operadore ekonomikoa) ordezkatzuz, IFZ
 zenbakiduna (operadore ekonomikoarena); Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Euskal
 Autonomia Erkidegoaren Kontratazio Publikoko Plataformako Kontratatzailearen Profilean argitaratu
 den BERMEOKO PORTUKO ARRAIN-LONJAKO TABERNA-JATETXEA GAITU ETA USTIATZEKO
 ADMINISTRAZIO-EMAKIDAREN ESPEDIENTEA IZAPIDETZEKO ESKAINTZA HAUTATZEKO
 LEHIAKETAREN jakitun izanik,

eta lehiaketa horren oinarrien agirian eta emakida arautuko duen baldintza-agirian eskatzen diren
 baldintzen eta betekizunen jakitun izanik, bere eskaintza hautatzeko eskatzen du, agiri horietan
 zehaztutako ondorioetarako, eta konpromisoa hartzen du lokal hori gaitzeko, kudeatzeko eta ustiatzeko,
 aipatutako betekizunak zorrozki betez, eta honako termino hauetan:

ESKAINITAKO ZERBITZUAREN URTEKO ORDUAK, GUZTIRA
..... ordu/urte

Enpresa lizitatzailleak dagokion justifikazio-dokumentazioa aurkeztu beharko du (urteko
 egutegiaren proposamena hilabeteen arabera banatuta, eta bertan agertuko dira eskainitako ordutegia
 justifikatzen duten urteko irekiera- eta itxiera-ordutegi guztiak).

.....(e)n, 20...(e)koaren ...(e)(a)n

Sinadura:

I.5 ERANSKINA

ESKAINITAKO TOKIKO PRODUKTUAK - FORMULEN BIDEZ EBALUATZEN DIREN IRIZPIDEAK

..... jaunak/andreak, norbere izenean edo(operadore ekonomikoa) ordezkatzuz, IFZ zenbakiduna (operadore ekonomikoa); Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Kontratazio Publikoko Plataformako Kontratatzailearen Profilean argitaratu den BERMEOKO PORTUKO ARRAIN-LONJAKO TABERNA-JATETXEA GAITU ETA USTIATZEKO ADMINISTRAZIO-EMAKIDAREN ESPEDIENTEA IZAPIDETZEKO ESKAINTZA HAUTATZEKO LEHIAKETAREN

eta lehiaketa horren oinarrien agirian eta emakida arautuko duen baldintza-agirian eskatzen diren baldintzen eta betekizunen jakitun izanik, bere eskaintza hautatzeko eskatzen du, agiri horietan zehaztutako ondorioetarako, eta konpromisoa hartzen du lokal hori gaitzeko, kudeatzeko eta ustiatzeko, aipatutako betekizunak zorrozki betez, eta honako termino hauetan:

Zenbaketa	Eskainitako tokiko produktuaren izena
1. zk.	
2. zk.	
3. zk.	
4. zk.	
5. zk.	
(...)	
TOKIKO PRODUKTUAK, GUZTIRA	(Zk.)

Enpresa lizitatzailerak dagokion justifikazio-dokumentazioa aurkeztu beharko du (bezeroei kontsumorako eskainiko zaizkien tokiko produktuen zerrenda, produktuon jatorri zehatza adierazita. Eskaintza iraunkorra edo sasoiaren arabera izan daiteke).

.....(e)n, 20...(e)koaren ...(e)(a)n

Sinadura:

I.6 ERANSKINA

TASAREN ZENBATEKOA HOBETZEA - FORMULEN BIDEZ EBALUATZEN DIREN IRIZPIDEAK

..... jaunak/andreak, norbere izenean edo(operadore ekonomikoa) ordezkatzuz, IFZ zenbakiduna (operadore ekonomikoarena); Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Euskal Autonomia Erkidegoaren Kontratazio Publikoko Plataformako Kontratatzailearen Profilean argitaratu den BERMEOKO PORTUKO ARRAIN-LONJAKO TABERNA-JATETXEA GAITU ETA USTIATZEKO ADMINISTRAZIO-EMAKIDAREN ESPEDIENTEA IZAPIDETZEKO ESKAINTZA HAUTATZEKO LEHIAKETAREN eta lehiaketa horren oinarrien agirian eta emakida arautuko duen baldintza-agirian eskatzen diren baldintzen eta betekizunen jakitun izanik, bere eskaintza hautatzeko eskatzen du, agiri horietan zehaztutako ondorioetarako, eta konpromisoa hartzen du lokal hori gaitzeko, kudeatzeko eta ustiatzeko, aipatutako betekizunak zorrozki betez, eta honako termino hauetan:

ESKAINITAKO TASAREN ZENBATEKOA (BEZa kanpo)*	
.....	Eraikitako azaleraren €/m ² /urte
.....	Eraiki gabeko azaleraren €/m ² /urte

(*) 2023ko ekitaldirako: eraikitako azaleran, 26,10 €/m²/urte (BEZik gabe), eta eraiki gabeko azaleran, 13,07 €/m²/urte (BEZik gabe). Emaizta horri % 50eko gehikuntza gehitu beharko zaio, portu-jarduerarekin lotuta ez dagoen merkataritza-jarduera bat baita. Hurrengo urteetan, hala dagokionean, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak onartzen dituzten legeetan eguneratutako zenbatekoa aplikatuko da. Tasaren hobekuntzak zerga-izaerarik ez duenez, ez dago Tasen Legearen eguneratze-araubidearen eraginpean.

.....(e)n, 20...(e)koaren ...(e)(a)n

Sinadura:

I.7 ERANSKINA

KONTRATATUKO DIREN LANGILEAK

(Erantzukizunpeko adierazpena, 2. irizpidea, 4. azpi-irizpidea, 12.2.2 klausula)

..... jaunak/andreak, norbere izenean edo
.....(operadore ekonomikoa) ordezkatzuz, IFZ
zenbakiduna (operadore ekonomikoarena); Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Euskal
Autonomia Erkidegoaren Kontratazio Publikoko Plataformako Kontratatzailearen Profilean argitaratu
den BERMEOKO PORTUKO ARRAIN-LONJAKO TABERNA-JATETXEA GAITU ETA USTIATZEKO
ADMINISTRAZIO-EMAKIDAREN ESPEDIENTEA IZAPIDETZEKO ESKAINTZA HAUTATZEKO
LEHIAKETAREN jakitun izanik, hauxe

ADIERAZTEN DU:

Konpromiso fidela hartzen duela guztira (zifra) lanpostu sortzeko, emandako emakidaren xede
den Bermeoko portuko arrain-lonjaren taberna-jatetxeko zerbitzu-prestazioari lotuta.

Konpromisoa hartzen duela sortuko diren lanpostu guztietatik __ (zifra) lanpostu desgaitasun
funtzionala dutenei esleituko zaizkiela (% 33 baino gutxiagoko desgaitasun-maila dutenen kasuan ez).

.....(e)n, 20...(e)koaren ...(e)(a)n

Sinadura:

I.8 ERANSKINA

KONTRATATUKO DIREN LANGILEEN HIZKUNTZA-PROFILA.

(Erantzukizunpeko adierazpena, 2. irizpidea, 5. azpi-irizpidea, 12.2.2 klausula)

..... jaunak/andreak, norbere izenean edo
.....(operadore ekonomikoa) ordezkatzuz, IFZ
zenbakiduna (operadore ekonomikoarena); Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta Euskal
Autonomia Erkidegoaren Kontratazio Publikoko Plataformako Kontratatzailearen Profilean argitaratu
den BERMEOKO PORTUKO ARRAIN-LONJAKO TABERNA-JATETXEA GAITU ETA USTIATZEKO
ADMINISTRAZIO-EMAKIDAREN ESPEDIENTEA IZAPIDETZEKO ESKAINTZA HAUTATZEKO
LEHIAKETAREN jakitun izanik,

ADIERAZTEN DU:

Konpromiso fidela hartzen duela emakidaren xede den Bermeoko portuko arrain-lonjako taberna-
jatetxearen zerbitzu-prestaziorako kontratatutako langileen artean, (zifra) langilek euskaraz
egindako ikasketa ofizialei lotutako Europako Esparru Bateratuko B2 maila edo handiagoa izango dutela
bermatzeko.

Konpromiso fidela hartzen duela emakidaren xede den Bermeoko portuko arrain-lonjako taberna-
jatetxearen zerbitzu-prestaziorako kontratatutako langileen artean, (zifra) langilek ingelesez
eta/edo frantsesez egindako ikasketa ofizialei lotutako Europako Esparru Bateratuko B2 maila edo
handiagoa izango dutela bermatzeko.

.....(e)n, 20...(e)koaren ...(e)(a)n

Sinadura:

II. ERANSKINA

BERMEOKO PORTUKO ARRAIN-LONJAKO TABERNA-JATETXEA OKUPATU ETA USTIATZEKO
EMAKIDA ARAUTZEKO BALDINTZAK.

1.– Emakida horrek ez du esan nahi portuko jabari publikoa eta Euskal Autonomia Erkidegoaren jabari-ahalmenak lagako direnik; hirugarrenen kalterik gabe eta ebazpen honetan, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas Garraioaren ekainaren 28ko 2/2018 Legean, Euskadiko Ondareari buruzko Legean eta irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onartu zen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren Tasei eta Prezio Publikoei buruzko Legearen testu bategian jasotako klausuletan xedatutakoari lotuta ematen da.

2.– Emakida horren xedea da honako jabari publikoko ondasuna okupatu eta ustiatzea: Bermeoko portuko arrain-lonjako taberna-jatetxea eta hari atxikitako terraza. Azalera osoa 225 m²-koa da.

Lokalean eta emandako azaleretan ez da emakidaren xede ez den bestelako jarduerarik egingo.

3.– Edonola ere, instalazioak martxan jartzeko beharrezko diren lanak edo ekipoen instalazioak adjudikaziodunaren kargura izango dira, eta gehienez ere sei (6) hilabeteko epean bukatuko dira, lehiaketaren adjudikazioaren ebazpena jakinarazten denetik aurrera zenbatzen hasita.

Emakida emandakoan, obra-bermea eratuko da. Berme hori proiektuaren barnean hartutako eta emakidari atxikitako lanen eta instalazioen guztizko aurrekontuaren % 4koa izango da, eta kalte-ordainetatik eta zehapenetatik eratorritako erantzukizunei lotuta geratuko da.

Emakidaren titularrak ez badu bermea emakida-ebazpenak ondorioak dituen egunetik aurrera zenbatzen hasi eta hamabost (15) eguneko epean eratzten, emakidari uko egiten diola ulertuko da.

Lanak eta ekipamenduen instalazioak egin eta gero, horiek aitortzeko akta bat egingo da, eta horri atxikiko zaio administrazio-emakida honen xede den jarduerarentzat instalatutako ekipamendu guztiaren zerrenda.

Obra-bermea itzuliko zaio emakidaren titularrari, hilabeteko epean Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak aintzatespen-akta egiten duenetik aurrera zenbatzen hasita.

Berme hori itzuli baino lehen, ustiapen-bermea eratu beharko da, zeina hurrengo apartatuan jasota dagoen.

Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzaren aburuz, interesdunak arrazoirik gabe uko egingo balio eskaerari edo tituluari, eratutako bermea galduko luke.

4.– Emakidaren titularrak nahitaez eratu beharko du Eusko Jaurlaritzako Ekonomia eta Ogasun Sailaren Finantza Politikako Zuzendaritzan, eta Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailarentzat eskuragarri jarrita, ustiapen-berme bat, zeina EAEko Diruzaintza Orokorrean gordailu gisa utziko den.

Berme hori emakidadunak ordaindu behar duen tasaren urteko zenbatekoaren arabera zehaztuko da, eta bost urtean behin berrikusiko da.

2023rako berme horren zenbatekoa 7.245,15 eurokoa izango da.

Berme hori ez eratzea emakida-obligazioak ez betetzea da, eta gaitasuna ematen dio Portuko Administrazioari emakidaren iraungipen aurreratua erabakitzeko.

Ustiapen-fidantzak honako hauei erantzungo die: emakidaren ondorio diren betebeharrak guztiei, emakidaren baldintzak ez betetzeagatik emakidadunari ezarri ahal zaizkion zigorrak, eta baldintza horiek ez betetzeak eragin ditzakeen kalteei.

Fidantza hori emakidadunaren titularrari itzuliko zaio emakidaren epea amaitzen denean, betiere hark ez badu betebeharrak egiteke, edo emakida luzatzen ez bada.

Eratutako bermea partzialki edo osorik betearazten bada, emakidaren titularrak nahitaez osatu edo itzuli beharko du hilabeteko epean, zenbatekoaren murrizketaren jakinarazpenetik zenbatzen hasita.

5.– Emakidaren titularrak, jarduera hasi baino lehen, Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzan aurkeztuko du kontratatutako langileen behin betiko zerrenda, eta, hala badagokio, kontratatutako langileak % 33 baino gehiagoko desgaitasun-maila duela egiaztatzen duen dokumentazioa, Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak egiaztatu dezan emakidadunak proposamenean hartu zuen konpromisoa.

Halaber, epe berebean, emakidadunak kontratatutako langileen hizkuntzen titulu edo ziurtagiri ofizialak aurkeztu beharko ditu Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzan, Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak egiaztatu dezan emakidadunak proposamenean hartutako konpromisoa betetzen duela.

6.– Emakida honen iraupena hamabost (15) urtekoa izango da, adjudikazio-ebazpena ematen denetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori bukatzen denean, administrazioak emakida luzatu ahal izango du bost (5) urteko ondorengo ondoko aldietan, baina ezingo dira bi (2) luzapen baino gehiago egin.

Luzapen horiek bakar-bakarrik emango zaizkio, baldin eta emakidadunak administrazioan eskaera egin baldin bada emakida bukatu baino lau hilabete aurretik, eta, aldi berean, administrazioak aginduta dituen interes publikoentzat aldekoa bada.

7.– Emakidadunak irailaren 11ko 1/2007 Legegintzako Dekretuaren bidez onartutako Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren tasa eta prezio publikoei buruzko Legearen testu bateginaren 197. quinquies 5.1 artikuluan jasotako tasa ordaindu beharko du.

2023rako tasaren zenbatekoa kalkulatzeko, 26,10 €/m²/urteko kuota aplikatuko zaio eraikitako azalerari, eta 13,07 €/m²/urteko kuota eraiki gabeko azalerari. Hurrengo urteetan, hala dagokionean, Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrek onartzen dituzten legeetan eguneratutako zenbatekoa aplikatuko da.

Emaitzari indarreko BEZa eta, EAeko Administrazioaren Tasa eta Prezio Publikoei buruzko Legearen 197. quinquies 5.1.3 artikularekin bat etorriz, % 50eko gehikuntza erantsiko zaizkio.

Aurrekoarekin bat etorriz, 2023rako tasaren zenbatekoa 8.766,63 eurokoa da (BEZa barne)

Zenbateko hori hobetu ahal izango da lizitatuak aurkeztzen duen eskaintzan, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas Garraioaren ekainaren 28ko 2/2018 Legearen 42.9 artikularekin eta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren tasa eta prezio publikoei buruzko Legearen testu bateginaren 197. quinquies 5.4 artikularekin bat etorriz.

8.– Emakida eskuratzeak ez du esan nahi titularrak legeak eskatzen dizkion lizentziak eta baimenak lortu eta mantendu behar ez dituenik, eta aplikatzeak zaizkion zergak ordaindu behar ez dituenik.

9.– Era berean, emakidaduna behartuta dago emandako jabari publikoari eta bertan garatzen diren obrei eta jarduerari eragiten dieten indarreko xedapenak betetzera, batik bat, hirigintza-lizentziak eta -zehaztapenak.

10.– Mantentze-lan ohikoak eta ezohikoak emakidadunaren kargura izango dira, eta nahitaez emandako azalera-, kontserbazio-, garbiketa-, higiene-, eta apaindura-egoera ezin hobean mantendu beharko ditu, eta bere kargura izango dira beharrezkoak diren ohiko eta ezohiko konponketak

ere. Horretaz gain, lokala eta elementu eta instalazio guztiak egoera ezin hobean entregatu beharko ditu emakida bukatzen denean.

Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak noiznahi ikuskatu ahal izango du emandako azaleraren kontserbazio-egoera, eta konponketarik egin behar bada, horiek adierazi beharko ditu. Hala, emakidaren titularrak nahitaez bere kargura egin beharko ditu finkatzen den epean.

Administrazioak behin-behinean itxi ahalko du erabilera publikoko jabaria, baldin eta inguruabarrak direla eta hala gomendatzen bada. Hala, ekidingo dira erabiltzaileen segurtasunari edo osasunari lotutako arriskuak, edo bestelako egoera anomaloak edo ezohikoak. Ixteak ez du esan nahi inolako kalte-ordainik jasoko duenik.

11.– Emakidadunak emango du ur-horniduraren eta dagokion saneamendu-tasaren alta eta horien kontsumoaren arduraduna izango da, baita energia elektrikoaren hargunearena eta kontsumoarena ere, eta jarduera garatzeko behar dituen gainerako hornidurena.

Zaborrak jasotzeari dagokionez, dagokion tasa bere kontura izateaz gain, jardueran sortutako hondakinak izaeraren arabera tratatu beharko dira, eta horien bilketa-kudeatzaileak esandakoak beteko dira. Hala, hondakinak izaeraren arabera zuzen sailkatuko dira.

12.– Emakidaren titularrak bere arrisku eta menturara kudeatuko du jarduera. Administrazioak ez du erantzukizunik ez emakidadunak bere gain hartutako betebeharren gainean, ez eta hark hirugarrenei eragindako kalte eta galeren gainean ere. Ustiapenerako beharrezkoak diren langile guztiak emakidaren titularraren kontura eta kargura izango dira.

13.– Emandako instalazioak aseguratuko dira, eta aseguru-polizaren kopia entregatuko zaio Bizkaiko Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzari.

14.– Lokalaren barnean eta inguruetan ez da instalatuko inolako jolas-makinarik edo antzekorik.

15.– Bereziki debekatuta dago emandako lokalaren barnean eta kanpoan inolako material arriskutsu, toxiko edo sukoirik biltegitzea.

16.- Urtebeteko epean ez badira erabiltzen emandako jabari publikoko ondasunak, iraungi egingo da emakida, betiere bidezko arrazoi bati erantzuten ez badio. Kasu jakin bakoitzean, Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak kalifikatuko ditu emakidadunak azaldutako arrazoiak lanak eta emandako ondasunak ez erabiltzeko. Xede horrekin, emakidadunak urtea igaro baino lehen jakinarazi beharko dio Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzari zergatik ez dituen emandako ondasunak erabili, eta zergatik ez dituen baimendutako lanak egin. Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzari ez bazaizkio egokiak iruditzen emakidadunak azaldutako arrazoiak, emakida iraungitzeko espedientea hasiko du.

17.- Emakiden gainean hipotekak edo bestelako bermeak eratu ahal izateko ere, Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzaren baimena beharko da aurretik.

18.– Emakida kausa hauek direla-eta amaituko da:

- a) Emakida-epea, eta hala badagokio, luzapena amaitzea.
- b) Indarrean dagoen legerian aurreikusitako kasuetan, ofizioz edo alderdiak hala eskatuta berrikustea.
- c) Emakidadunak uko egitea eta Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak uko hori onartzea.
- d) Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak eta emakidadunak hala erabakita.
- e) Ezeztatzea.
- f) Iraungitzea.
- g) Erreskatea.
- h) Emakidadunaren nortasun juridikoa azkentzea.
- i) Aplikatzekoa den araudian aurreikusitako beste edozein arrazoi.

19.– Azkentzea gertatu eta gero, emakidaren xede den higiezina, inolako kargarik gabe, Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzari itzuliko zaio. Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak inolaz ere ez du emakidaren titularrak hirugarrenekin hartu duen lan- edo ekonomia-betebeharrak bere gain hartuko.

Dagokion akta egingo da, Administrazioak itzultako ondasunak jaso dituela adieraziz. Akta emakidadunaren aurrean egingo da, hura agertuko balitz. Akta horretan, itzultako ondasunak zer egoeratan dauden aipatuko da, eta kalterik balego, horiek ere zehaztuko lirateke. Kalterik balego, dagokion espedientearen izapideak egiteko oinarria izango da akta; bertan, behar diren konponketen zenbatekoa zehaztuko da, eta emakidadunari eskatuko zaio kopuru hori.

20.– Ebazpenean berriaz aurreikusitakoez gain, emakida iraungitzeko arrazoiak izango dira honako hauek:

a) Ustiapen-bermea ez eratzea hilabeteko epean obren aintzatespen-aktatik aurrera zenbatzen hasita.

b) Emakidaren xedean azaltzen ez diren jarduerak garatzea.

c) Hamabi hilabeteen jarduera abandonatu edo ez egitea, Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak berriaz onartzen duen justifikatutako kausaren bat gertatu izana salbu.

d) Okupazio edo erabilerako hamabi hilabetei dagokien borondatezko aldiak ez ordaintzea.

e) Baimenik gabeko lanak egitea.

f) Ebazpen honetako baldintzak ez betetzea, jabari publikoan izan ditzakeen eraginen aurreko ebaluazioaren ondorioz.

g) Zerbitzugunea okupatzea emandako azaleraren mugetatik kanpo.

h) Emakidaren erabilera hirugarren bati lagatzea, nahitaezko baimenik gabe.

i) Emakida-titulua eskualdatzea baimenik gabe.

j) Hipotekak eta gainerako berme-eskubideak eratzea.

k) Eska daitezkeen bermeak ez berrezartzea edo osatzea, Portuko Administrazioak alde aurretik horretarako eskaera egin duenean.

l) Emakidaren titularraren nortasun juridikoa bat-egitea, xurgatzea edo zatitzea gertatuz gero, alde aurreko baimenik gabe egiten bada.

m) Emakidaren titularraren heriotza edo haren kausadunek jarraitzeko duten interesa jakinarazten ez bada.

Iraungitzea deklaritzen denean, eraturako bermea galtzeaz gain, aurretiaz Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzari itzuliko zaizkio emakidadunak eraikitako instalazioak.

21.– Emandako jabari publikoa beharrezkoa bada portu-administrazioarentzat bere eskumenak egikaritzeko, erreskate osoa edo partziala egin ahalko du Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas Garraioaren 2/2018 Legean ezarritakoarekin bat etorriz.

22.– Iraungitzea albo batera utzi gabe, emakidaren baldintzak ez betetzea arau-haustea izan daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Portuen eta Itsas Garraioaren ekainaren 28ko 2/2018 Legean ezarritakoaren arabera. Arau-hauste horien ondorioz, emakidaren titularrak zehapena jaso dezake, hala balegokio eska dakizkiokeen erantzukizunak alde batera utzi gabe.

Arau-haustek alde aurretik kasuan kasuko administrazio-espedientearen instrukzioa egin ostean zehatuko dira, administrazio-prozedura arautzen duen legeriak ezarritakoaren arabera.

23.– Jabari publikoko eremua okupatzeko eta eraikina erabili eta ustiatzeko emakida jabari publikokoa izango da, eta interpretaziotik edo betetzetik sortutako auzietako kontu guztiak ebatziko ditu Portu eta Itsas Gaietako Zuzendaritzak.

24.- Ebazpen-proposamen honetan aurreikusi ez den guztian, aipatutako lege-xedapenetan eta oro har aplikatu beharreko gainontzekoetan ezarritakoa bete beharko da.